

1.980 Urtearen aurrean

Paulo Agirrebaltzategi, uno de nuestros escasos colaboradores en euskara, formula en este breve artículo 12 deseos para la iglesia vasca.

Según él, la Iglesia vasca debería ser *cristiana*, bien basada en Xto; *unificada* y *unificadora* de nuestro pueblo *disgregado*; *euskaldun*, *enraizada* en este pueblo *particular*; *libre*, *capaz* de dar esperanza a los *oprimidos*; *pobre*, de obra, no solo de palabra; *pacificadora*, dispuesta a construir la paz; *popular* surgida del pueblo; *abierta*, como hasta ahora a otros pueblos; *servidora*, sin estar al servicio de los poderes políticos; *crítica* dispuesta a recibirla y ejercerla en su interior; *profética*, dándole primacía sobre el *juridicismo*; *dinámica*, *recobrando* su fe en el mensaje y en la misión.

EUSKAL ELIZARI URTE BERRI ON!

Paulo Agirrebaltzategi

Egun hauetan ene adiskideei zorion-agurra bidaltzen ari naiz. Horrela da ohitura. Horiengandik ere hartuko ditudala uste dut. Pozgarria izaten da beti.

Eguberrietako zorion-agurrek ez dute gehienetan eskabide berezirik eramaten. Motxak izaten dira; eta eskabide luzeak Olentzerorentzat edo Hiru Erregeentzat uzten dira. Eguberrietako zorion-agurrak gogo eta asmo onez beterik joaten dira.

1.980. urtearen aurrean, nere gogo batzu agertu nahi ditut Euskal Elizarentzat: hamabi gogo. Joan zai-gun urte honetan Euskal Elizaren hierarkia berritu da; orain hasten dugun urte berri honetan Eliz Herri osoaren jokabide eta egituren berritzea nahi nuke. Urte Berri, Eliza Berri!

1. — EUSKAL ELIZA KRISTAUA.

Kristorekiko lotura etenezina etengo balu, Eliza ez litzateke kristau Eliza izango; erlijio asoziazioen bat, edo kultur mugimenduren bat izango litzateke. Horregatik, Euskal Elizak etengabe eutsi behar dio Kristorekiko loturari. Etengabe haren Hitza, Ebanjelioa du

ganean. Honek argitu eta kritikatu beharko ditu Euskal Elizaren egitura guztiak, jokamolde denak, dokumentuak eta pastoralak oro.

2. — EUSKAL ELIZA BATUA.

Hemengo Elizaren batasuna nahi nuke 1980. urterako. Zatikatua ikusten

La Iglesia vasca será unificada sólo en la medida en que se esfuerce en unificar al pueblo disgregado.

du: administrazio mailan, gizartean. Areago, historian zehar, Euskal Herriaren zatiketaren aurrean erantzule dela uste du Eliza. Horregatik, geografiaren aldetik, administrazioaren mailan, gizarte eta kulturaren; eta hizkuntzaren aldetik desintegratuta dagoen Herri honen bateratzaile izan beharko luke Euskal Elizak. Herriaren bateratzaile izanik bakarrik izango bait da Eliza batua. Uste izan nahi nuke, dato-

Conseguirá la Iglesia vasca ser particular además de Iglesia de Cristo?

ren urte honetan azkenik Hego Euskal Herriko Eliz Probintzia eratuko dela.

3. — EUSKAL ELIZA EUSKALDUNA

Euskal Herri deseuskaldundu honetan bizi da Eliza; eta deseuskalduntze hori indarrez eta erasoz gertatu da. Eta kristau Eliza ere tarteko izan da. Horregatik, eta judutar egin eta izan zen Kristoren jarraitzaile denez, euskal Eliza euskaldunagoa gertatzea nahi nuke. Herri honen nortasun historikoan errota eta etorkizuneko Herri proiektuaren serbitzari. Euskal Herriko Kristoren Eliza ezezik, Euskal Eliza partikularra izatera iritsiko ahal da!

4. — EUSKAL ELIZA LIBREA

Hauxe exigitzen zuten orain dela urte batzu Derioko Seminarioan itxita

zeuden apaizek. Nik ere Euskal Eliza libreagoa nahi nuke: Eliz komunitatearen barnean askatasunaren lekua izango dena; beren burua zapalduta ikusten eta sufritzen duten jendeai eta herriari askatasunaren esperantza eman-go dien Eliza; *libertate kosmikoaren*, ekonomikoaren, sozialaren eta kulturalaren barnean eta eragile bezala, beka-tuarekiko askatasun sakonaren mezua aldarrikatuko eta biziko duen Eliza nahi nuke Euskal Herrian.

5. — EUSKAL ELIZA POBREA

Bere burua "Pobreen Eliza" bezala aitortzen duena, sarritan pobreen kontrako instituzioa gertatzen dela ikusten dut. Pobrentzako Eliza izateaz gainera, Eliza pobrea izan beharko luke Euskal Eliza, pobreekin batera pobretasuna bizitzeko eta hortixe pobreen esperantza bizkortzeko. Klase pobreen aldeko aukera nabaria eta benetakoa egin beharko luke Euskal Elizak, klase aberatsen kontra burrukatzeko.

6. — EUSKAL ELIZA BAKEGILEA

Euskal Elizak sarritan aldarrikatu du bere burua bakezale bezala: bakea eskatu du eta edonondiko biolentzia kondenatu du. Bakezaletasuna, ordea, bakea sortuz, eta bakegiro horretarako baldintzak eratuz, agertzen eta aitortzen dela uste dut. Euskal Herria bake-projektuaren zain dago, bake-kondizioen zain; entzunak ditu sarritan bake-oihuak. Horregatik Euskal Eliza bakezalea ezezik, bakegilea nahi nuke.

7. — EUSKAL ELIZA HERRITARRA

Herriak ez du aginterik, ez ekonomi mailan, ez kulturaren mailan ez eta politikan alorrean. Aginterik gabeko sektore handi horixe da herria.

Me gustaría ver una Iglesia que diera esperanza a todo el que sufre y es oprimido o negado.

Baina sarritan Euskal Eliza botereza-lea eta botereduna ikusten dut: boteredunen adiskide gainera. Areago, boterean oinarritzen dela uste dut sarritan Eliza. Horregatik, 1980. urterako aginterik gabeko herri horretan finkatuko den Eliza nahi nuke Euskal Herrian. Eliza herritarra, herritik sortua; eta ez "populista". Horregatik, Kristau Elkarte herritarren biziagotzea eta zabal-tzea nahi nuke.

8. — EUSKAL ELIZA IREKIA.

Ez dut uste Euskal Herriko Eliza itxia izan denik, beste Elizei buruz eta beste Herriei buruz. Eta postu egiten naiz. Mixiolaritza mundialaren eredia eta zaindaria euskalduna da: Xabierko

Para denunciar torturas y represión indiscriminada, la Iglesia cristiana no debería necesitar pruebas morales. El profetismo y el juridicismo no tienen nada que ver.

Frantzisko. Baina milaka eta milaka izan dira euskal mixiolaria historian zehar. Euskal hiru Diozesi izan ziren, baita ere, lehen diozesi misiolari modernoak. Irekitasun eta mixiolaritza honi eutsi behar diola uste dut Euskal Elizak.

9. — EUSKAL ELIZA SERBITZARIA

Elizak Euskal Herrian ez dauka bere indarra beste indar politiko, ekonomiko edo ideologikorekin neurtzerik.

En una sociedad pluralista, la función de la Iglesia no es imponer su ley a toda la sociedad. Ya veremos qué pasa en el debate ante el divorcio!

Tamalgarria izango litzateke Euskal Elizak bere dogma edo bere moralala indar politikoaren edo moralaren bidez gizarte osoari ezartzea nahi balu. Euskal Herri pluralista honetan, Eliza ez dago gizarte osoari bere legea ezartzeko; eta bai bere Ebanjelioa zerbitzeko. 1980. urtean ikustekoa izango dugu



Euskal Eliza, Dibortzioaren arazoa nabarmenduko denean.

10. — EUSKAL ELIZA KRITIKOA

Euskal Herriko Elizak kritika asko jasotzen du, Euskal Herriari buruz eta beste zenbait arazori buruz izan duen

jokabideagatik. Kritika horien aurrean irekia egon behar duela uste dut. Ez luke burua defenditzen hitz asko gata-tatu behar; alderantziz, kanpotik datozkion kritikak bere burua kritikatzeko erabili. Areago, dogmatismo eta tradizionalismo itxietatik ihesezin beharko luke, Eliz komunitate barnean bertan kritika eta bide berriak bultzatzeko.

11. — EUSKAL ELIZA PROFETIKOA

Euskal Herrian eta gizartean diren

zuzengabekeriak salatzen eta burrukatzen du Elizak bere indar moralala; eta galdua baldin badu, bereganatu beharra dauka, bere mixio gizarte honetan bete nahi badu. Horretarako interesak alde batera utzi behar ditu, agintedunen eta ezarritako indarren eta egituren zuzengabekeriak eta okerrak ere salatzen. Torturak eta errepresio indiskriminatua salatzen, kristau Elizak ez luke froga moralen premiarik izan behar. Profetismoak eta juridizismoak ez dute elkarrekin zerikusirik.

12. — EUSKAL ELIZA DINAMIKOA

Azken aldian Euskal Elizak nekaturaren antza daukala dirudi; bildurtua ote dagoen ere ematen du. Baina horrek ez dauka zerikusirik autokritikarekin. Bere mixioarekiko eta bere mezua-rekiko konfiantza birreskuratu behar duela uste dut Euskal Elizak. Etorki-zuneko Euskal Herriaren egiteko garrantzikorik ba duela uste dut. Bere esperantzaren indarra eta eragina aldarrikatu eta zabaldu behar ditu. 1980 urtean, Euskal Elizaren indar motelduak bizkortzea nahi nuke, eta bere dinamismo berria Euskal Herri berrian agertzea.

Euskal Elizari Urte Berri On!